

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2018

Joan den ekainaren 4an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2018ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena onartu zuen; Kontu Orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuek (GFA), foru erakunde autonomoen kontuek (Uliazpi Fundazioa eta Kabia), haren merkataritzako foru sozietateen kontuek (IZFE, Bidegi eta Etorlur Gipuzkoako Lurra) eta foru fundazioek (Kirologi, Sueskola Gipuzkoa, Adinberri, Ziur eta Naturklima, Gipuzkoako aldaketa klimatikoa behatzeko fundazioa).

HKEEk aldeko iritzia plazaratu du Gipuzkoako lurralde historikoaren gainean, unean uneko salbuespenak azpimarratu dituela. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, GFAREN Diruzaintza Geldikina 13,6 milioi euroan handituko luketenak. GFAREN Egoeraren Balantzeari dagokionez, ez ditu jasotzen ez zaharren egoitzetarako zortzi eraikinen lagapen doakoa, ez hiruren obra publikoko administrazioko emakidak ere. Gainera, ezin zehaztu izan dira GFAko balantzeko eta Etorlurren aktibo arrunteko ibilgetu material eta ukiezineko zenbait kontu-sail. Azkenik, adierazi da informazio eza dagoela Bidegiko Urteko Kontuetako ziurgabetasun baten gainean, salgaiak garraiatzeko ibilgailu pisutsuentzat GLHko A-15 eta N-I gaitasun handiko errepideetan, zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordaintzen den kanon kontzeptuan erregistraturiko diru-sarrerei buruzkoan.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren **finantza egoera** aztertu du eta azpimarratu du diru-bilketak gora egin duela eta horrek bide eman duela inbertsio errealean exekuzioa areagotzeko eta 65 milioi euroren emaitza sortu duela ekitaldian. Halaber, diruzaintza geldikin bateratuak ere gora egin du eta zorpetzea 15,5 milioi euroan murriztu da.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla** adierazi du. GFAk Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioari igorri dio eta administrazio honek ez du salbuespenik adierazi.

Fiskalizatutako erakundeek **zuzentasunez bete dute** euren ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege arautegia eta unean uneko akatsak azaleratu dira Langileriaren atalean (enplegatuei ordaindutako ordainsari jakin batzuetan PFEZa salbuestea) eta Administrazioako kontratazioaren atalean (dagokion esleipen prozedura baliatu gabe guztira 2,2 milioi euroren gastuak egin dira, eta 5 zerbitzu-kontratutan, guztira 5,1 milioi euroren zenbatekoa egin dutenetan, lizitazio prozedura atzerapenez abiarazi da).